

Santurtzin, 2018ko abenduaren 1ean

Olentzero jauna,

Badakit azken gutuna idatzi nizunetik denbora luze igaro dela eta nire berririk izan ez duzula. Oso zailak izan dira niretzat azken urte hauek zeren nire herritik ihes egin izan behar nuen eta nire familia bidean galdu nuen. Berriz ere ez dut Samir, Anika edo Yamal ikusi.

Samir, nire senar maitea. Hamabost urterekin elkar ezagutu genuen. Oso mutil ederra zen, eta neska asko berarekin maiteminduta zeuden, baina berari inporta ez zitzaion. Bi urte pasa eta gero hasi ginen hitz egiten, lehenago lotsak irabazi ninduelako eta ez nintzelako ausartu. Handik gutxira, geratzen hasi ginen eta bikotea bihurtu ginen. Hogei urterekin ezkondu ginen eta urte bat geroago, Anika jaio zen. Ume potxoloa bazen ere, oso polita zen, bere begi handiak eta marroiak liluratzen gintuzten. Anika hazi zen eta bost urte zituenean Yamal jaio zen. Anika bezala, Yamal ederra zen eta berriz ere liluratuta geratu ginen. Oso maite nituen, eta orain ez daude nirekin.

Duela urte batzuk ondo geunden Palestinan bizitzen, guda bazegoen, baina ez zen orain beste beldurgarri, momentu horretan ez zegoen gaur egungo masakre bezalakorik. Izututa ginen, bai, dena dela, lasai bizi ginen, gure armadak israeldarren armadaren kontra egiten baitzuen eta hurrengo egunean berriz elkar ikusiko genuela baikenekielako. Israeldarrek gure armada gailendu ez balute, oraindik Palestinan egongo ginatkeen, denok batera...

Egoera okerragotu zenean, ihes egin izan behar genuen. Egun batzuk lehenago, Yamalen urtebetetzea izan zen, hamalau urte egin zituen. Kamioi batean ihes egingo genuen, baina igo baino lehen martxan jarri zen eta presaka hasi ginen igotzen, lehenik Anika igo zen, gero Yamal eta azkenik ni igo nintzen... Samir saiatu zenerako oso urrun geunden. Hor bertan geratu zen nire maitea, kamioia urruntzen zela ikusten... ezin izan nuen ezer egin.

Samir bidean galdu banuen ere, oraindik nire seme-alabekin nengoen.

Bi edo hiru egun geroxeago, kamioiak kostaldean utzi gintuen, hortik patera batean Mediterraneoko itsasoa zeharkatuko genuen eta Marokon geldituko ginen beste bi edo hiru egunez. Mediterraneoko itsasoa zeharkatzen genuen heinean, oso olatu altuak eta arriskutsuak izan ziren. Egun batean, ekaitzak zeudela, olatuak inoiz baino arriskutsuak izan ziren eta, zoritxarrez, patera irauli egin zen. Pateran geunden guztiok urperatu ginen. Orduak pasa eta gero, gaua zela, ezezagun batzuk txalupetan etorri ziren gu salbatzeko. Berriz lehorrean egon ginenean nire semea eta alaba bilatu nituen. Bakarrik Anika aurkitu nuen, Yamalen arrastorik ez zegoen.

Anika eta biok ez ginen izan bakarrak urperatze horretan familiako norbait galdu egin zutenak, baina horrela sentitzen ginen.

Gure sentimenduak alde batera utzita gure bidea jarraitu genuen. Ceuta eta Maroko banatzen zuen hesia salto egin behar genuen. Anika beldurtuta zegoen, ez zitzaidan arraroa iruditzen. Horregatik, ausartu nintzen eta Anika baino lehen eskalatu nuen. Bere buruaz konfiantza izatea nahi nuen. Irribarre batekin hesia igotzen hasi zen. Bat-batean hainbat gizon, mafioso itxura zeukatenak, agertu ziren. Oihuak baino ez ziren entzuten. "Kenar, Kenar txuloa!" garrasika hasi ziren batzuk. Arineketan Anikak igotzen jarraitu zuen, baina berandu izan zen. Gizon batek nire alaba gerritik hartu zuen hesitik aldenduz eta berarekin eramane zuen. Berriz ere, ezin izan nuen ezer egin.

Konturatu nintzenean hesiaren beste aldean nengoen, ni bakarrik.

Hala ere, atzerantz begiratzeko denbora ez da. Orain Santurtzin nago, eta ez dakizu zein berezia den. Bere kultura, bere hizkuntza, hemengo jendearen ohitura hain arraroak... Santurtzik beste mundu bat dirudi! Ohituratzea ez da izan erraza, ia 2019an gaude eta jendeak oraindik zuria ez den norbait ikustean aurpegi txarra jartzen du, eta nire familia ez egotearen tristezia gehitzen badiogu, esperientzia txar hau infernua bihurtzen da. Samirren laztanak eta musuak, elkarren arteko orduetako elkarrizketak eta Anika eta Yamalen irribarreak faltan botatzen ditut.

Non dauden ez dakit, ezta bizirik irauten duten ala ez. Beraz, etxera bueltatzeko ez dizut eskatuko, Samir, Yamal eta Anika nirekin bueltatzeko ere ez. Soilik kontu bat, besterik ez dizut eskatuko. Bizirik irauten badute, zaindu. Zaindu mesedez.

Palestinako gudako errefuxiatu bat, Kimara Shejham.